

Azoka eta eski ikastaroa egingo ditu Mendiriz Mendik

■ Azokan bigarren eskuko mendiko materiala egongo da ■ Eski ikastaroak fondo eta alpinokoak izango dira ■ urtarrilaren 14rako, berriz, mendi buelta antolatu dute.



Mendiriz Mendik antolatuta, iazko Mendizale astean jende asko bildu zen.

MENDIRIZ Mendi elkarteak heldu dio neguko denboraldia-ri. Hil honetarako mendi irteera eta urteroko beste bi ekitaldi antolatu ditu.

MENDIKO MATERIALAREN AZOKA
Aurreko urteetan bezala, mendiko materiala erabiltzen ez eta saldu nahi duenak oraintxe du saltzeko aukera, Mendiriz Mendiko azokan. Bigarren eskuko material hau saltzeko gaur, urtarrilak 12, utzi behar da elkarteeko lokalean. Erakus-

keta egunak eta orduak: urtarrilaren 15etik 19ra bitartean, 19:30etatik 21:00ak arte.

Botak, eskiak, mapak edo dena delakoa uztean, jabeari txartel bat emango zaio utzi duenaren zerrenda, ezaugarri eta prezioarekin. Saltzen dena, astebete barru ordainduko da; eta saltzen ez dena otsailaren 16rako eraman beharko du.

ESKI IKASTAROA

Eski alpinoa edo fondokoa biak ikasiko edo landuko dira

ikastaroan. Ikastaroa nolakoa eta zein mailakoa izango den, ordea, ezin dute aurretik esan: apuntatzen den jende kopuruak, mailak eta asmoak erabakiko du hori. Horretarako, urtarrilaren 15ean bilera egingo dute izena eman dutenekin.

Ikastaroa urtarrilaren 20 eta 21ean izango da. Izena emateko azken eguna hilaren 15a. Mendiriz Mendiko lokalerara jo edo hots egin astelehen, ostegun edo ostiralean arratsaldeko zortzietatik bederatzia bitartean. □

Iñauterietako kartel lehiaketa zabalik da

■ Hernaniarrentzat da ■ Saria: 40.000 Pta

38 zm zabal eta 44 zm luze behar du aurtengo inauterietako kartelak. *Hernaniko inauterietak 2001* lema eraman behar du eta urtarrilaren 26a baino lehen utzi behar da Biterin.

JAI BATZORDEAK ERABAKIA

Sariduna hala erabakiko da; otsailaren 9a baino lehen eta udaleko kultura batzordearen onspenarekin. □

Karobi Elkarteak gaur du 'inaugurazio ofiziala'

■ Beste elkarteetako eta udaletxeko jendea izatekoa da afaritan ■ 21:00etan.

LATXUNBEBERRIKO Karobi elkarteak gaur hartuko du *herriaren bedeinkazioa*. Berez, elkarteeko bazkideek abenduaren 29an inauguratu zuten;

baina, Hernaniko ohitura da elkarte bat sortzen denean beste elkarteetako bazkideekin eta udal ordezkariekin afaria egitea. Horixe egingo dute. □

Erregeak aurten Gudarien plazan izan dira

■ Jende eta ume asko bildu zen agurtu eta beraiekin hitz egitera ■ 'Solidarioak' tabladura igo ziren



Erregeak umeekin hizketan, plazan.

EZ hautsik harrotu gabe, baina, aurten ere erregeak etorri eta joan dira. Ekitaldia, egin ez egin, egon zen. Portalez kanpoko arkutik barrena sartu eta, umeen agurra hartuta, tabla-

duan egin zuten ekitaldia. Musika Banda izan zuten lagun, eta *Hator hator* kanta jotzen ari zirela presoen aldeko *solidarioak* tabladura igo eta bost minutu egon ziren han. □

■ ERREMONTEA GALARRETAN (BINAKAKO TXAPELKETA)

Ezkurra-Etxeberria 40 Altuna I-Etxabe 24

■ Ezkurra eta Etxeberria finalurrekoetarako sailkatu dira ■ Altuna eta Etxabek badaukate aukeraren bat oraindik ere.



LARRE-GAIN
Tolare-Sagardotegia
Tel. 943 55 58 46

ZATOZ TXOTX DENBORALDIA ZABALTZERA

GAUR 20:00etan BARRIKOTEA

Egunero zabalik, igande gaua eta astelehena ezik.

LARRE-GAIN BASERRIA ERE OTZU - HERNANI

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

* ASISTENTZIA TEKNIKOA,
GAS ETA BEROGINTZAN.
* GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURALA: MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4



Telemar
ITXASTE S.L.

Telyco denda

Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

'Telefonía'ko banatzailea eksklusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via digital",...


Eskaintza berezia:

'Pack Movistar Activa, OT 301' 21.900 pztatik
(10.000 pzta deietan)

PELOTA (BINAKAKO TXAPELKETA)

Oiaga-Oregi I, Telleria-Bazeta txapelketako lehen partiduan

■ Bi hernaniar arituko dira: Esnal eta Oiaga ■ Gaur, ostirala, Kiroldegian 22:00etan



Hankak arin beharko ditu Oiagak, gaur, txapelketako debutean.

GAUR hasiko da bigarren mailako binakako txapelketa. Aurtengoan bi hernaniarrek hartuko dute parte: Iñaki Esnalek (iazko irabazlea izaki, bigarren faserako klasifikatua) eta Iosu Oiagak. Gaur biak arituko dira Kiroldegian, baina Iosu txapelketako partiduan eta Iñaki txapelketatik kanpo, Fuertes lagun duela Aio eta Mendiaren kontra.

PALETA GOMAKO TXAPELKETA

Eli Lasa eta Amaia Martinezek Euskal Herriko txapelketako partidua dute bihar Lizarraren kontra; 16:00etan Kiroldegian. □

KULTUR ASTEA MARTINDEGIN

Martindegi eta Ereñotzu zein baino zein

■ Larunbatean, herri kiroletan probatuko dute elkar
■ Ondoren bertso afaria Etxeberria sagardotegian.

AGINDU eta bete. Kultur astearen barruan, *Sanantoniotan* Ereñotzun jokaturako desafioaren buelta izango da biharkoa. Arratsaldeko seietan hasi-

ko da Oialumen. Ondorenean, 20:30etan, bertso afaria Lizaso eta Irazurekin. Txartelak Oialume tabernan bertan daude salgai 3000 Ptan. □

ATLETISMOA

Eskolarteko proba, bihar, Antziolako pistan

KIROL Elkarteko atletismo sailak antolatuta, Donostia aldeko atleta alebin eta jubenilak Hernanin izango dira larunbatean.

Denera, zazpi proba dituzte, goizeko 10:30etan hasita. □

Argiñano eta Arzak Peña Otañon

■ Publizitate 'espota' grabatzen aritu ziren.

HERNANIK bi sukaldari izarren bisita izan zuen aurreko astean. Arzak eta Argiñano anuntzio bat grabatzen aritu ziren Peña Otaño elkartean. Beste elkarteetan ere begira aritu ziren, nonbait; baina, erosotasunagatik eta sukaldaren baldintzengatik Peñakoa aukeratu dute.

Grabazioa Asegarce enpresak egin du. Menuekin *faszikulo* batzuk atera ditu eta haien osagarri izango da anuntzioa. Elkarte oso osoa bete zuten trastez: hasi makilatzeke toki eta jenero, kamara, ontzi... □



Argiñano eta Arzak Peña Otañon. A ze bi pieza!

serigrafia diseinu grafiko

etxea apaintzeko gauzen eta oparien denda

andrekale35
kardaberaz, 35. Tel.: 943 33 60 05

JOSTUNDEGIA

ZABALEGUI

Hasi da Merkealdia.

Izpizua 17 - Tel. 943 55 29 47 -20120 HERNANI

MUEBLES HERNANI

Astelehenetik Ostiralera 16:00etatik 20:00etara
eta Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara Zabalik.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

HITZ BITAN



Mendipeko amona Iñaxi eta Mertxe Mendizabal saski ondoan.

✓ OSIÑAGA BAILARA

Mikel Fernandezentzat Gabonetako saskia. Osiñagako auzo elkarteak urtero saskia zozketatzen du Gabonetan. Aurten Mikel Fernandez, *Mendipeko semea* izan da zorionekoa. Saria ematerakoan, ordea, bera etxean ez-eta amona Iñaxiri eman zioten.

✓ ELUR TXORI ELKARTEA

Loteria ordaintzeko: Urtarrilean: 13, 14, 21, eta 28an; Otsailean: 4, 11, 18, eta 25ean. Goizez 11:30-13:00era.

✓ EHIZA TXAPELKETA

Sari banaketa afaria gaur, Txantxangorrin. Otaegik jantziko du Hernaniko ehiztari oneraren txapela, joan den abenduko bi igandeetan jokaturako txapelketan puntu gehiena berak atera zituen-eta. Bigarrena, iazko txapelduna: Santakruz gaztea. Hirugarrena, berriz, Garzia. Afalondorenean, Ehiza Txapelketan ibilitako guztien artean kotoa zozketatuko dute -afarira etorri ez diren ehiztariak ez dira sortean sartuko-. Afaria 20:30etan da.

✓ 'KRONIKA' PELOTA TXAPELKETA

Atzeratutako partidua, datorren iganderako. Kronika pelota txapelketa aurrera doa eta lehenengo buelta otsailean bukatuko da. Zenbait bikotek, ordea, partidu dezente dituzte atzeratuta, jokatu gabe. Igandea da partidu horiek jokatzeko azken eguna. Jokatu ezean, galduta bezala balioko du jokatu gabeko partidu bakoitzak.

ASTEBURUKO ZINEA

'Bailame el agua'

■ Helduentzat. Ostiralean 22:30etan; larunbatean, 19:00 eta 22:30etan; eta igandean 17:30etan.

'Karramarro uhartea'

■ Umeentzat: larunbatean eta igandean 17:00etan.

IRRATIAK

(E.M. 99.2): 12:00etan: *Iraulio Panitalone Bandeko* Eñaut hizketan. 12:15etan: *Autodeterminazioaren biltzarrekoekin* berriketan. Antolatu duten autokarabana. 18:00etan: *Utzi Hernani Pakeanek* antolatutako poesia emanaldia.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
▶ Gaez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska euskaldun bat pisu konpartitu baten bila dabil.

☎ 943-33 29 62